# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 291. zenbakia. 2020ko uztaila

## Mallabiko zuhaitz motzak, antzinako ohitura egunotan

# IRAZABAL

clínica dental

**Ainhoa Zulueta**
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian, Periodontzian, inplantologian.
**Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian.
**Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Autran Institutoa. Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza.
**New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa.
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**
**8:00**etatik **22:00**etara
**Zapatuetan:**
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

## Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

**JARRAI IEZAGUZU**

**Facebook**en: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**

IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

RPS 173/15

***ARGITARATZAILEA:***
**Euskal Birusa**
**Elkarte Kulturala.**

***HELBIDEA:***
**Erdikokale zeharbidea 2, 1.**
**247 posta-kutxa**
**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**
**www.euskalbirusa.eus**

***ERREDAKZIO TALDEA:***
**Alazne Aiestaran,**
**Amaia Arginzoniz,**
**Estibalitz González,**
**Libe Solozabal**
**eta Dorleta Vidal.**

***KOORDINAZIOA ETA MAKETAZIOA:***
**Dorleta Vidal.**

***HIZKUNTZ ARDURADUNA:***
**Alazne Aiestaran.**

***AZALEKO ARGAZKIA:***
**Valentin Mugarza.**

***LAGUNTZAILEAK:***
**Antonio Hernández 'Cuco',**
**Patxi López,**
**Mallabiko Kultur Etxea,**
**Valentin Mugarza**
**eta Nahia Rojo.**

***ARGAZKIAK:***
**Roberto Arrarte,**
**Ermuko Udala,**
**Estibalitz González,**
**Eusko Jaurlaritza,**
**Garazi Juez,**
**Carlos Justel,**
**Valentin Mugarza,**
**Nahia Rojo**
**eta Dorleta Vidal.**

***PUBLIZITATEA:***
**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**

***INPRIMATEGIA:***
**Gertu Koop. (Oñati).**

***BANAKETA:***
**Piedi Eizagirre,**
**Ibon Txurruka**
**eta Olatz Vidal.**

***TIRADA:***
**2.425 ale.**

***ISSN:***
**1133-973X.**

***LEGE GORDAILUA:***
**SS-213/1994.**

***Drogetenitturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.***

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

Gaia: ume kantua.

## Eragiozu

**(Entzuteko: www.alboka.es)**

Eragiozu
eskutxuari,
behin batari eta
behin besteari.

# Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4
Garazi Juez (Alemania)
ELKARRIZKETA .....5-7
Carlos Justel
MALLABIAN ZER? .....8-9
Zuhaitz motzak
ERREPORTAJEA .....10-11
Armagintza gurean (II)
MOTZEAN .....12-13
Langabeziak gora egin du
ERREPORTAJEA.....14-15
Gaseosak eta sifoiak
ERMUAN ZER? .....16
Orduko denporetako Santixauak
BOTEPRONTOAN.....17
Josu Elustondo
IRITZIA .....18
Bikote harremanak eta konfinamendua
ZORION-AGURRAK .....19
Saldu, erosi edo agurtu
ANTZINAKOAK.....20
Ermuko eta Mallabiko argazkiak
SAREAN GALDEZKA .....21
Ondo iruditzen zaizu ikasleek etxeko lanak izatea oporretan?
ABUZTUKO AGENDA ...22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Garazi Juez Uriagereka




**San Mameseko Ingeniaritza Eskolan egin zituen Telekomunikazio Ingeniaritza ikasketak, eta duela urtebetetik Munichеko BMW enpresan dihardu lanean, auto autonomoen segurtasun elektronikoaren ikerketan.**

***- Erabaki erraza izan zen Munichera joatea?***

Ez, erraza ez. Gainera kanpora nindoan bigarren aldia zen, aurretik Austrian egon nintzelako ia 4 urtez. Gero Ermura bueltatu eta Tecnalian lanean nengoela, BMW nirekin harremanetan jarri zen, eta Munichera joateko erabakia hartu nuen.

***- Nola imajinatzen zenuen leku hura?***

Austrian egonda, banekien gutxi gorabehera antzekoak zirela. Eta kultura aldetik ere Munich Austriaren oso antzekoa da. Ermuan lanean nengoenean, Europarako egiten nuen lan, eta orduan ere aleman askorekin nuen harremana. Bestalde, Munichen enpresa asko daude, industria handia dago. Eta badago industrian posizio oso ona duen jendea, baina badago lan postu hain onetan lan egiten ez duen jendea ere, eta pisuak oso garestiak dira. Nik uste dut gero eta ezberdintasun handiagoa dagoela.

***- Zelan moldatzen zara bertako hizkuntzarekin?***

Gero eta gehiago ulertzen dut. Alemanez hitz egiten dut, baina ingelesez gehiago. Adibidez, nire enpresan aleman asko hitz egiten da, oso bavariarrak dira eta ez dute ingelesez egiten. Alemanez zerbait ulertzen ez badut berriro galdetzen dut eta listo, horrela ikasten dut.

***- Eta janariarekin?***

Janariarena oso txarto daramat: ezin da janari mota hori egunero jan, txerri asko jaten dute! 11:30ak aldera bazkaltzen dute, hemengo gosaria ia! Haien afaria *brotzeit*a da (ogiaren denbora edo momentua izango zen euskaraz), eta gazta jaten dute hestebete apur batekin.



Garazi Bavaria estatuaren aurrean, (Theresienwiesen, Theresienhöhen, München), "Oktoberfesta egiten den lekuan", argitu du.

***- Nolakoa da hango eguneroko tasuna?***

Jendeak pentsatzen du hemengoarekin alderatuz lan ordu gutxiago egiten direla, baina lan ordu asko egiten dira. Alde ona da lege batek debekatzen duela hamar ordu eta erdi baino gehiago lan egitea. Eta ordubete hartu behar dela, bai ala bai, atsedena egiteko. Horrez gain, lanean malgutasun handia dago, eta hori oso ona da. Bakoitzak bere ordutegian jartzen du noiz ez den egongo, bilerarik ez jartzeko, eta bizitza pertsonaleko edozer gauza egin dezakezu frogagiria erakutsi gabe. Udan lan egin ostean *biergarten* batera joaten gara, zerbeza zerbitzatzen duten terraza batera, alegia.

***- Zerbait botatzen duzu faltan?***

Familia eta lagunak. Oso bizitza ezberdina da.

***- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?***

Uste dut baietz, baina ez dakit noiz.

Libe Solozabal

San Antonio
OKINDEGIA
GOZOTEGIA
Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

AIZ
Garraioak, S.L.
☎ 636 95 83 39 (JULEN)

AMAIA
HARATEGIA
Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen

Zutik, Carlos Justel ezkerrean eta Iñaki Arrizabalaga eskuman; makurtuta, Juanjo Gómez ezkerrean eta Julen Sololuze eskuman. Uztailaren 15ean atera zen argazki hau, finalerdietako bat jokatu baino lehen. Sololuzek eta Arrizabalagak irabazi zuten, 25-22.

elkarrizketa

**Carlos Justel, palista eta pala txapelketako antolatzailea:**

# "Gure pala txapelketan sortzen den giroa berezia da"

**1979. urtean jokatu zen lehen pala txapelketa Ermuan, eta ordutik ehundaka palistek jokoan jardun dute plazako frontoian maiatza eta uztaila bitartean: ermuarrek, inguruko herrietakoek zein urrutiagotik etorritakoek. Urte batzuetan Roberto Arrarte aritu zen jokalari eta antolatzaile, eta 2008az geroztik Carlos Justel eta Juanjo Gómez jokalariek daramate txapelketaren gidaritza. Justelen esanetan, aurtengo edizioa berezia izaten ari da Covid19aren eraginez, baina txapelketa osasuntsu dagoela deritzo. Palaren etorkizuna Ermuan, ordea, ez du sasoian ikusten, eta errelebo faltak penatzen du. Aurtengo finala, ohi bezala, uztailaren 24an jokatuko da: Sololuze-Arrizabalaga / Iker-Kepa.**

***- 40 urtetik gora ditu Ermuko txapelketak. Palara jokatzeko tradizioa dago herrian?***

Esango nuke Rober Arrartek hartu zuenean txapelketaren gidaritza, eta partida politak ikusten hasi zirenean, nahiko ohikoa zela mutikoak palarekin ikustea. Baina gero padela agertu zen, eta akabo! Suntsitu ditu pala, frontenisa eta esku-pilota! Entzuten zen hemendik kanpo padelak sekulako arrakasta zuela, baina ez nuen horrelakorik espero. Gogoan daukat duela 10 bat urte Aritzmendi frontoian txanda hartzea ezinezkoa zela; gaur egun, aldiz, ordu guztiak daude libre. Zorionez baditugu Ermuan bi gazte, oso ondo jokatzen dutenak, eta palari jarraipena eman diezaioketenak: Julen Sololuze eta Iñaki Arrizabalaga. Julenek eta biok Basauriko lehen mailako txapelketa eta Zierbenakoa irabazi genituen 2017an. Bera aurrean eta ni atzean.

***- Eta zure ustez, zergatik da hain arrakastatsua padela?***

Ez dakit. Askoz dibertigarriagoa da pala, baina padelak esfortzu txikiagoa eskatzen du: leku itxi batean zaude eta gutxiago mugitu behar zara, pilota astiroago doa, indar gutxiago egin behar duzu…

***- Inguruko herrietan ere joera berdina dago?***

Ez, Eibarren, esaterako, jende gaztea dabil. Gure txapelketan badabiltza batzuk; eta are gehiago, bigarren mailan aritu ohi diren gehienak eibartarrak dira.

***- Izan ere, garai batean pala kluba sortu zen Ermuan…***

Bai, Aritzmendin taldetxo bat batzen ginen, eta iruditu zitzaigun maila polita genuela kanpoan lehiatzen hasteko. Hiru urtez egon ginen federatuta, eta horietako batean Bizkaiko txapelketa irabazi genuen, Roberto Arrartek eta Juanma Ferreirok jokatuta. Horri esker, 2004an, Euskal Herriko eta Nafarroako *grawn* txapelketan parte hartu genuen. Urtebete lehenago, gainera, Udaberriko txapelketa irabazi genuen Roberrek eta biok.

***- Kultur eta kirol jarduera ia guztiak bertan behera geratu diren honetan, pala txapelketak aurrera egin du. Eraginik izan du Covid19ak txapelketan?***

Bai, zenbait aldaketa egin behar izan ditugu. Alde batetik, urtero bi kategoria egoten dira, eta aurten bakarra dago. Parte hartzaileen kopurua ere mugatu dugu, eta 10 bikote gara bakarrik. Beste urte batzuetan 8-10 bikotek jokatzen dugu lehen mailan, eta 16 bat aritzen dira bigarrenean, hau da, 50 lagunetik gora. Bestalde, ohi baino beranduago ekin diogu txapelketari, ekaina bukaeran. Maiatza bukaeran jokatzen hasita egoten gara, eta Santixauetako umeen jokoak hasi baino lehen, finalistak erabakita lagatzen ditugu. Aurten, umeen jokorik ez dagoenez, ekainaren bukaeran hasi gara. Eta besterik ez. Azken finean aire zabalean jokatzen dugu, frontoian metroak daude, eta tira, maskararekin jokatzea ezinezkoa litzateke.

Juanma Ferreiro eta Carlos Justel, Basauriko txapeldunak 2015ean.

***- Badago aire zabalean jokatzen den beste pala txapelketarik?***

Nik dakidala, San Inazion (Bilbon) beste bat dago; gainontzekoak frontoi itxietan dira. Giro ezberdina da. Frontoira bakarrik doaz benetan pala gustukoa dutenak, baina kalean egotean handik pasatzen diren asko geratu egiten dira, eta jendetxoa biltzen da. Oso giro berezia sortzen da. Horrez gain, gure frontoiak berezitasun bat du: ezkerreko hormak eskailera modukoa du, eta pilota asko gurutzatzen baduzu, ezkerretik irteten da.

***- Zer nolako maila daukate Ermura datozen jokalariek?***

Aurten, inguruko herrietako jokalariak bakarrik ari dira (Ermukoak, Eibarkoak, Zaldibarkoak, Elorriokoak, Abadiñokoak…). Normalean, ordea, jendeak ez dakien arren, palako jokalaririk onenek hartzen dute parte, Gasteiztik, Bermeotik, Zarautzetik edota Irunetik etorritakoak.

***- Sari potoloek deituta?***

Ez, betidanik txapeldunek dirutxo bat jaso izan dute, gauza handirik ez. Baina duela bospasei urte aldatu egin genuen. Orain txapela eta oroigarria jasotzen dute, eta herriko jatetxe batean afari bat. Horrela dirua herrian geratzen da. Oroigarriak eta finalerako kamisetak ere bertan erosten ditugu.

***- Deigarria da aurten markagailurik ez egotea…***

Ez, Udalak ez jartzeko eskatu zigun, Covid19a delaeta. Normalean umeak pilatu egiten dira tantoak apuntatzeko…

***- Finalean ermuarrak egongo dira?***

Bai, Ermuko hiru bikote heldu gara finalaurrekoetara, eta bakar batek egin du aurrera: Julen Sololuzek eta Iñaki Arrizabalagak osatzen dutena. Elorrioko Ikerrekin eta Abadiñoko Keparekin neurtuko dira uztailaren 24an.

Dorleta Vidal

LURPE ERMUA
Drogetenitturri, 291 zk.

Caperos
Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

OSASUNA * ESTETIKA EDERTASUNA
Marfil
Ile-apaindegi bat baino gehiago!!
Egokitutako burua garbitzeko konketa
943 17 28 09 · Goienkale 12

## ROBERTO ARRARTE, PALA TXAPELKETAKO JOKALARI ETA ANTOLATZAILE OHIA

Carlos Justelen esanetan, bada herriko jokalari bat lan ikaragarria egin izan duena pala txapelketaren alde: Roberto Arrarte, Jose Ignacio Arrarte jokalari ohiaren semea. Pala txapelketa oso ahulduta zegoenean, Roberrek hartu zuen haren gidaritza (2003an) eta, lan handia egin eta gero, lortu zuen berriro sendotzea. Ermuar honek badaki egun mantentzen den aspaldiko txapelketa bakarra dela Orbe Kardinaleko frontoikoa, "xarma handikoa", eta berau zaindu beharra dagoela, agian txikitatik ikusi duelako plazan pala jokoa. Hori dela-eta horren sorreraren inguruko ikerketak egin izan ditu, eta horien arabera 1979an jokatu zen lehen aldiz txapelketa. Urte horretan, Jose Javier Izagirre-Iñaki Izagirre eta Javi San Ildefonso-Fermin heldu ziren finalera, eta azken hauek irabazi zuten, 45-44. "80ko hamarkada urrezkoa izan zen: plaza jendez gainezka, giro aparta… —gogoratu du Arrartek—. Gero, herri kirol guztiekin gertatu den bezala, zaletasunak beherantz egin zuen".

Javi San Ildefonso (ezkerrean) eta Fermin (eskuman), 1979ko finala irabazi eta gero.

Dena den, gogoan dauka pala profesionalean ibilitako Ernesto Vieirak hainbat txapelketa eskuratu zituela 90. hamarkadan, eta milurteko berrian Roberto bera eta Vidaurre izan zirela nagusi. Izan ere, Carlos Justelen esanetan, Rober "punta-puntako" jokalaria zen, baina sorbaldako minak jota, 2009an erretiratu egin zen. Beste saiakera bat egin zuen 2015ean eta, Juanjo Gómezekin txapela irabazi eta gero, behin betiko agur esan zion palari.

### Bitxikerlak

Ezinezkoa litzateke frontoian aritutako jokalari guztiak aipatzea, baina 2006an, finalaren egunean, argazkierakusketa batek jokalari mordo baten irudiak bildu zituen: Javi San Ildefonso, Fermin, Abarrategi, Mondra, Cano, Landa, Rico, Gallas, Jose "calvo", David López, Mikel Morcillo, eta baita Mallabiko Unai Martin, Juanma Ferreiro eta Pradera anaiak, besteak beste. Eta azken urteetako izenak ere aipatu dizkigu Roberrek, tartean, Zornotzako Unda, Debako Zabala, Berrizko Berasaluze VII eta Ernesto (txapela irabazi zutenak). Eta txapela irabazi ez duen arren, Carlos Justelek oso merezita du Roberren ustez: "Ondo jokatzen du,

Miguel Vidaurre eta Roberto Arrarte (eskuman), Ermuko txapeldunak 2008an.

zaletasun ikaragarria dauka eta lan handia egindakoa da". Carlos Totorika alkate ohia, Juan Carlos Abascal alkatea, eta Ermuko apaiza ere palan ibilitakoak direla aipatu du; eta eskertu du Udalaren eta, batez ere, Patxi Lópezen prestutasuna eta babesa txapelketak aurrera egin ahal izateko.

Eta aurrera egite honetan, txapelketaren bitxikeria batzuk ezagutzera eman ditu Arrartek. Esaterako, hasieran 45 tantora jokatzen zela, 90. hamarkadan 35era, 2009tik aurrera 30era, eta 2015etik hona 25 tantora. Gainera, hasieran ez zen hesirik jartzen, eta ikusleak oso gertu zeuden, "atzelaria hurbildu ahala atzera joan behar izaten ziren".

Generoari dagokionez, txapelketa neskei ere zuzenduta dagoela azaldu du, baina Itsaso Pradera mallabitarrak bakarrik parte hartu izan du, Andoni Aldape bikotekidearekin.

Dorleta Vidal

AMATXI BAR-CAFÉ
Menuak, ospakizunak...
Erdikokale 11 · Tel. 846 666 533

RIF
ITURGINTZA KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

ZK
ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

SPARA ARKITEKTURA
ARKITEKTURA ESTUDIOA
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI
www.spara.es
info@spara.es
Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia
943 17 70 57

udal euskaltegiak
Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

# Zuhaitz motzak, ehunka urteetako ohituraren aztarnak

**Berano auzotik osteratxoa egitea nahikoa da moarratzearen teknika gertutik ikusteko. XV. mendean hedatu zen zuhaitzak mozteko ohitura Euskal Herrian, eta gaur egun su-egurra egiteko helburuarekin erabiltzen da batik bat. Valentin Mugarza basogintzako teknikariak badu horren berri.**

Artetako zuhaitz motzak. *Arg. Valentin Mugarza.*

Kapetatu, inausi, lepatu, lepotu, mugarratu, muarratu, moarratu… hitz asko daude inguruko baserritarrek zuhaitzak mozteko erabiltzen duten teknika izendatzeko, 600 urteko ibilbidean zehar bildutakoak. Europa osoan zabaldutako ohitura honen bitartez, arbola-espezie jakin batzuen adarrak tarteka moztu egiten dira, mendeen joan-etorriekin aldatzen joan diren beharrak asetzeko xedearekin.

Beranoko Estakua baserrian, esaterako, su-egurra egiteko moarratzen dituzte egun zuhaitzak, baina aspaldiko testigantzak jaso izan dituzte, eta hauen arabera, uztarriak, trenbide-trabesak eta itsasontzien gilak egiteko erabiltzen zituzten bertakoek moztutako adarrak. Eta are gehiago, ohikoa zen baserritarrek adar berriak lotzea haiek bihurtzeko helburuarekin, itsasontzian izango zuten forma emateko. Erdi Aroaren bukaeran (1.400 urtearen bueltan) hasi ziren euskaldunak haritz motzak sortzen, eta zuhaitz horien zura bideratzen zuten itsasontzigintzara, baina duela 200 urte inguru utzi zitzaion honi.

### Pago motzak

Inguruko basoetan hain ohikoa den pagoak XIX. mendean hartu zuen garrantzia, haritz motzei lekukoa hartuta. Pago motzak 12 edo 15 urtetik behin mozten ziren, eta ikatza egiteko erabili gehien bat. Baserritarrak arduratzen ziren ikatza egiteaz, moarratutako egur guztia batu, eta lur-eremu lau batean txondor-plaza egin eta gero. Ondoren, egur-ikatza inguruko enpresetara eramaten zen, galdategietara, eta "sekulako jarduera" zegoela dio Mugarzak. Duela 60 bat urte, baina, industrializazioak indar handia hartu zuen, eta ikatzaren ordez, elektrizitatea erabiltzen hasi zen energia-iturri bezala. Horren ondorioz, apurka-apurka zuhaitz motzen jarduera gutxitzen eta galtzen joan da, eta gaur egun baserritarrek su-egurra egiteko erabiltzen dute ia bakar-bakarrik.

Mallabiko Berano auzoko Estakua eta Artetan pago eta haritz motzak daude oraindik, eta hauek izan dira nagusi zuhaitz motzen esparruan Euskal Herri osoan ere. Izan ere, Mugarzak azaldu duenez, bi zuhaitz mota hauek berezitasun bat dute: moztu eta gero, berriro hazteko ahalmena dutela (azken 100 urteetan horrenbeste basotan landatu den *insignus pinua*, aldiz, oso arin hazten da, baina behin moztuta ezin da birsortu). Baina badira beste zuhaitz batzuk moarratzearen teknikarekin erabili izan direnak, tartean sahatsak eta lizarrak. Azken hau oso ohikoa da mendien inguruan (Aralarren eta Gorbeian, esaterako), eta aspaldian, uda bukaeran edo udazkenean, jateko gutxi zegoenean, adarrak mozten zitzaizkien abereei jaten emateko.

### Zuhaitzak indarberritu

Badira eskertzen dutenak zuhaitzei adarrak mozteko teknika hau galzorian egotea, basakeriatzat baitute. Baina Mugarzaren esanetan, batzuen ustez basakeria denak, zuhaitzari mesede egiten dio. Izan ere, arbola hazi eta asko luzatzen denean, ez da gai sustraietatik puntaraino elikagaiak garraiatzeko, eta sasoi batean, beheratu egiten da, berriro ere indarra hartzeko. Moarratzeak lana erraztu egiten dio zuhaitzari, eta indarberritzeko aukera eman. Eta behin hasita, komeni da lepatzeari jarraipena ematea, zeren eta adar berriak oso bertikal hazi ohi dira, eta urteekin baliteke adar hauek pisu handia hartzea, zuhaitzak oreka galtzea, eta jaustea. Lurrean erorita ere, zuhaitz horrek bere aletxoa jarriko du naturaren eta biodibertsitatearen alde. Baina gai hori beste osteratxo baterako utziko dugu.

Dorleta Vidal

Drogetenitturri, 291 zk.

ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

## UDALAK BI KANPAINA JARRIKO DITU MARTXAN HERRIKO JARDUERA EKONOMIKOA BULTZATZEKO

Itxialdiak eragin dituen galera ekonomikoak leuntzeko asmoz, bi ekimen abiatuko ditu Udalak datozen egunotan: bat ostalaritza, merkataritza eta landa-eremuko ostatu jarduerei zuzenduta, eta bestea herritarrei oro har. Lehen kanpainaren bitartez, zuzeneko laguntza eskainiko zaie herriko tabernari, dendari eta nekazalturismoetako jabeei. Mallabiko alkatea den Igor Aguirrek azaldu duenez, saltokiak itxita egon diren aste bakoitzeko 100€ emango dizkie Udalak, 1.000€ko mugarekin. Bigarren ekimena, "Mallabia Bizi" deritzona, erosketa-bonoen bitartez gauzatuko da. Bi bonu mota jarriko dira salgai: jatetxe- eta merkataritzakoa, 5€ ordaindu eta 10€ gastatzeko; eta turismo-ostatukoa, 25€ ordaindu eta 50€ gastatzeko. Guztira 700 eta 80 txartel jarriko dira salgai, hurrenez hurren, eta ekimenaren aurrekontu osoa 11.000€koa izango da. Ostalaritza-, saltoki- eta ostatu-establezimenduetan egongo dira bono hauek salgai, uztailetik urrira bitartean, eta pertsona bakoitzak 4 erosi ahal izango ditu gehienez, abenduaren 31 baino lehen gastatu beharko dituztenak.

## ANDRA MARI JAIAK OSPATUKO DIRA UDAN

Abuztuaren 14a eta 16a bitartean ospatuko dira Andra Mari jaiak, eta Udalak egitarau zabala prestatu du: kale animazioa, pilota partidak, Ruper Ordorikaren kontzertua, harrijasotze txapelketa, *scape rooma*, Luhartzen erromeria… *(egitarau osoa 22. orrian)*.

## HIRU HITZALDI ESKAINIKO DITU KZGUNEAK UZTAILEAN

Mallabiko KZguneak itxita jarraitzen duen arren, teknologia berrietan formatzeko interesa dutenek onlineko ikastaroetan izena eman dezakete. Uztailaren 23an, 11:00etatik 12:00etara "Android sekreturik gabe" ikastaroa egingo da; hilaren 28an, ordutegi berean, "Azken gailu teknologikoak ezagutu" ikastaroa; eta 30ean, 18:00etatik 19:00etara, "Murgildu errealitate birtual eta areagotuan". Izena emateko Youtubeko KZguneaTic atalera jo beharko da. Mallabiko Kultur Etxeko arduradunek adierazi dutenez, herriko KZguneak itxita jarraitzen du, baina erabiltzaileak beste herrietako zentroetara joan ahal izango dira. Horretarako hitzordua eskatu beharko da 945 016 100, 944 033 324 edo 944 033 335 telefonoetan.

## IRAILAREN 30ERA ARTE ORDAINDU DAITEKE TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO UDAL ZERGA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren erreziboa helbideratuta ez daukatenek, irailaren 30a baino lehen ordaindu beharko dute. Ordainketa egin ahal izateko Udalatxera jo beharko da, Internet bidez ordaindu, edo banku batean Udalaren kontuan diru-sarrera egin.

Dorleta Vidal

FEREDU
SOLUTIONS S.L.



* HEZETASUNAK
* ERREHABILITAZIOA
* INPERMEABILIZAZIOAK
* MANTENIMENDUAK
* IGOGAILUAK
* ERREFORMAK
* FATXADAK
* ITE
* TEILATUAK
* GARBIKETAK

www.feredusolutions.com
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

# Armagintza gurean (II)

**Ramiro Larrañaga idazle plaentxiarrak "Armeros vascos. Repaso histórico-Raíces y desarrollo" izenburupeko liburuan 2001. urtean argira emandako armagin zerrenda amaigabetik, gurean aritutako 70 pertsona eta enpresen izenak bereizi ditugu.**

**Abankargazko pistola. Zidarrean zintzelatuta dakar "En Ermua. Por Careaga. Año 1840". Euskal Museoak 1992an erosi zuen antigoaleko denda baten, 160.000 pzta. ordainduta.**

**Argazkiak: Estibalitz González. Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoa.**

Ikerlariari eginiko elkarrizketa batean, armen ekoizpena Euskal Herrian noiz hasi zen galdetuta, zera zioen: "Frogatu dut Placencia-Soraluze, Eibar, Elgoibar, Ermua, Arrasate, Bergara eta abarretan su-izkiluak Amerikako deskubrimenduaren aurretik ekoizten zirela, zehazki 1482an". Argitzen duenez, ezinekoa da 500 urteko etengabeko jarduera honek sortutako marka ugariak biltzea. "Arma-maisu bakoitza lantegi baten jabe bezala hartu behar da, kasu askotan langile gutxi batzuren kargu eta XIX. mendearen erdialdera arte indarrean egon ziren 4 gremioetako baten sartuta", aipatzen du ere. Beraz, armaginen kolektibo zabalaren gremiook osatzen han zeuden kanoigileak, iskiluaren kanoia egiteaz arduratzen zirenak; kaxaginak, kuliandia edo kulataz; txispaginak, tiro sistemaz eta azkenik aparejuginak, armak behar zituen gainontzeko txikikerietaz.

Larrañagak batutako zerrendan, armagin bakoitzarekin doan datak enpresa aktibo zegoen uneetako bat adierazten du. "Sasoi gremialaren ondorengo urteetan, adierazitako urtea XIX. mendearen azken hiruhilekoan ezarri ziren industria-erregistroetatik lortutako datua da, baita beste erregistro batzuetatik ere", azaltzen du egileak. "Armagina" deitura generikoa jartzen du dokumentuak ez duenean zehazten lanbidearen barruan zer berezitasun zuen. Gurera etorrita, 1548koa da lehen arkabuzari ermuarra eta Mallabian armagin bakarra azaldu da erregistratuta, Gerean eta 35 urtez aktibo egondakoa. Hauek ba idatziz topatutako artisau eta enpresarien deiturak, beraien ofizioa eta ekoiztutako izkilu mota edota markaren izenarekin:

ACHA Y Cía, Domingo de. Pistola automatikoak eta errebolberrak. Acha, Atlas, Triplex, D.A.C, Gloria , Allies eta Looking-Glass markak. 1914-45.

ACHA, Fernando. Pistolak eta errebolberrak. Looking-Glass marka. 1945.

ACHA, Hermanos. Pedro Mª. Pistola automatikoak eta errebolberrak. Looking-Glass eta Acha markak. 1910-36.

AGUIRRE y Cía. Pistolak eta errebolberrak. Basculant, Le Dragón eta A.C. markak. 1920-36.

AGUIRRE, Vicente de. Armagina. Marka propioa. 1810-29.

AGUIRREGOMEZCORTA, Francisco. Pistolak eta errebolberrak. 1929.

AITOR S.A. Kirol-arma zuriak. 1997.

AMILLATEGUI, Juan de. Txispagina. Guerena. 1705-40.

ARAMBURU MAQUIBAR, Benito. Armagina. 1896.

ARAMBURU, José. Errebolberrak. J.A. marka. 1929-33.

ARAMBURU, Martín Lorenzo de. Armagina. 1810-17. Armak Bartzelonako 1929ko Nazioarteko Erakusketan.

ARANA, José de. Armagina. Pistoidun pistolak. 1832.

ARDANZA, Félix. Pieza mekanizatzailea. 1929.

AREITIO, Domingo. Hijos de. Piezen mekanizazioa. 1929-33.

AREITIO Hermanos. Izkilu motzak. H.A. marka. 1925.

AREITIO, Juan Domingo de. Armagina. 1810.

AREITIO, Martín de. Armagina. 1723.

ARIÑO, José Mª de. Errebolberrak. 1900.

ARZAMENDI, Juan de. Arkabuzaria. 1598-1610.

ASTIAZARAN, Ignacio Melchor de. Armagina. 1810.

ASTIAZARAN RIVAS, Pedro Miguel de. Arkabuzaria. Marka propioa. 1758an jaioa.

AZCARATE. Pedro de. Aparejugina. 1745ean diputatu gremiala.

BASOBILBASO, Antonio de. Txispagina. 1722-45.

BENGOECHEA, Valentín. Arma motzak. V.B.I. marka. 1925-32.

BUSTINZA, Andrés López de. Arkabuzaria. Plaentxiko Armen Errege Fabriketan ordaintzaile. 1574.

BUSTINZA, Domingo de. Arkabuzaria. Santanderren Pedro Menéndez de Avilések prestatzen zuen Armadarako arkabuzak eta mosketeak hornitu zituen. 1578-94.

BUSTINZA, Pedro de. Arka-

Iberikoetan
espezialistak
Mayte
VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

PUB YOMY
Zubiaurre
kalearen
bihotzean

buzaria. 1597.

CAREAGA, B. Armagina. Guardia de Corps talderako pistola berezien egilea. 1812-32.

CAREAGA, Silvestre. Arkabuzaria. Marka propioa. 1793.

CASALIZ, Gregorio. Piezen mekanizazioa. 1929.

EGUREN, Domingo de. Armagina. 1745.

EIZAGA-GOICOECHEA, Agapito de. Armagina. 1810.

EIZAGA-GOICOECHEA, J. Armagina. 1802.

EIZAGUIRRE. Sinadura armeroa. Carlos V pretendientearentzat bi pistola berezi egin zituen. 1838.

GARATE Hermanos. Pistolak eta errebolberrak. Cantabria eta G.H. markak. 1910-1929.

GOMICIAGA, Javier de. Armagina. 1810.

GORROCHATEGUI, Doroteo. Errebolberrak. D.G. marka.

HORMAECHEA, Fernando. Arma motzak. F.O. marka. 1925-30.

IRIGOYEN, Domingo de. Txispagina. 1574.

IRIGOYEN, Domingo de. Arkabuzaria. Santanderren Pedro Menéndez de Avilések prestatzen zuen Armadarako arkabuzak hornitu zituen. 1594-1639.

ITURRIAGA, León . Piezen mekanizazioa. 1929.

IZAGUIRRE. Sinadura armeroa. 1838.

IZAGUIRRE, Eloy. Arma motzak. E.I. marka. 1925-33.

IZAGUIRRE, Francisco. Pistolak, errebolberrak eta kartutxerak. F.I. marka. 1929-34.

IZAGUIRRE, Pedro Mª. Pistola automatikoak. 1929.

IZARRA, Teodoro. Karabinak eta piezen mekanizazioa. T.Y.E. marka, izar biren artean.

LARREATEGUI, Diego de. Arkabuzaria. 1598-1610.

LARREATEGUI, Juan de. Kanoigilea. 1652-66.

LARRIATEGUI, Domingo García de. Arkabuzaria. 1588-1634.

LARRIATEGUI, Francisco Ibáñez de. Arkabuzaria. 1548-58. 1.048 arkabuzen eskaera.

LARROSA, Pantaleón de. Oviedoko Errege Fabrikan Maisu aztertzailea 1838an.

LEGORRETA, Esteban de. Kanoigilea. 1599.

MENDIOLA, Aurelio. Pistolak. Vainquer marka. 1912-23.

ODRIOZOLA, Joaquín de. Armagina. 1740.

OLAERREAGA, Juan de. Arkabuzaria. 1598-1610.

ONAINDIA Hermanos. Pistolak eta errebolberrak. O.H. marka. 1929-32.

ORBE, Casto. Arma motzak. C.O. marka. 1924-29.

ORBE y AREITIO Hermanos. Errebolberrak eta pistola automatikoak. 1929.

ORMAECHEA, Fernando. Pistolak eta errebolberrak. F. O. eta Merke markak. 1929-33.

ORMAECHEA, José Mª. Piezen mekanizazioa. 1929.

ORMAECHEA, Viuda e Hijos. Piezen mekanizazioa. 1929.

ORMAECHEA y UNAMUNO. Aldibereko tiroko lau kanoidun errebolber-pistolak.

ORTUZAR MENDIOLA, Justo de. Plaentxin Maisu aztertzailea 1842-66 artean eta Oviedon 1866an.

SAGRONIZ, Donato. Arma motzak. D.S. marka. 1925-30.

SALAVERRIA, Santiago. Pistola automatikoak. Etna, Tisán, Unis, S.S. Protector eta Invicta markak. 1920-35.

SOLOZABAL, Gregorio. Armagina. Lefaucheux errebolberrak 1870 inguruan.

URIGÜEN, Diego García de. Arkabuzaria. 1598.

URRETA y Cía. Arma motzak. Hijos de Domingo Urreta bezala jarraitu zuen. U.Y.C. marka, koroi baten azpian.

ZUBIBARRETA, IRIONDO y Cía. Arma, pistola eta errebolberren mekanizazioa. Z.I.C. eta Le Dragón markak. 1929.

ZULOETA, Martín de. Txispagina. 1612.

Estibalitz González




**Hiru artisau ermuarren marka identifikagarriak, euren su-iskiluetan grabatzen zituztenak.**

Plan B
Coffee Lounge
Gin & Beer

Torrealday
ASESORES CONSULTORES
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
Goienkale Kalea, 9, Ermua ● 943 17 44 35
www.torrealday.es

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK
Tel.: 94 659 01 41 - 618 89 29 60
E-maila: info@enolimp.es
48620 Ermua (Bizkaia)
Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es

### ARTARRAI MENDI TALDEAK EKIMENA ANTOLATU DU ALLARIZEN

Abuztuaren 19an “andaina” (ibilaldia) burutuko da Allarizen, Galizian, Ermuko Artarrai Mendi Taldeak antolatuta. Sei orduko iraupena izango duen arren, maila erraza duela argitu dute antolatzaileek. Parte hartu nahi dutenak 9:00etan bildu beharko dira herri horretako Turismo Bulegoko zubiaren ondoan. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko taldearen egoitzara jo beharko da ostegunetan, 19:30etaik 20:30era (Teresa Murga eraikineko bigarren solairuan).

### GAZTEROBOTIKA EKIMENA BURUTUKO DA ABUZTUA ETA IRAILA BITARTEAN

Gazterobotika ekimenaren 4. edizioa egingo da Ermuan abuztuaren 31tik irailaren 4ra bitartean, Izarra Centren. Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. maila bitarteko ikasleei zuzendutako tailer ezberdinak eskainiko ditu Doplay enpresak, eta bakoitzak 20 orduko iraupena izango du, 5 egunetan banatuta, eta euskaraz. Talde bakoitzean 14 ume onartuko dira, eta bakoitzak bere ordenagailu eramangarria eta materiala izango ditu, beste ikasle batzuekin elementuak partekatu behar ez izateko. Izena emateko interesa dutenek www.doplay.es/talleres-en-ermua helbidera jo beharko dute.

## Drogetenitturri aldizkariak izena eman du Euskaraldian

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean burutuko da Euskaraldia, hizkuntza ohiturak aldatzeko xedearekin. Bigarren edizio honetako berrikuntza da, norbanakoez gain, entitateek edo taldeek parte hartzeko aukera izango dutela (edonolako komertzioek, kultur eta kirol taldeek, eragileek eta enpresek, besteak beste), horiek 'Arigune' bezala identifikatuko direlarik. Ermua eta Mallabiko *Drogeteniturri* aldizkariak jada izena eman du euskaraldia.eus webgunean, Ermuko beste entitate batzuekin batera. Entitateen izen ematea irailaren 27ra arte egongo da zabalik.

## Udalak martxan jarriko du “Ermua aurrera” plana

Ermuko Udalbatzak aho batez onartu zuen “Ermua aurrera” deritzon plan berezia, uztailaren 2an burutu zen osoko bilkura berezian. Plan honen helburua da herritarren ongizatea bermatu eta osasun krisiaren aurreko jarduera ekonomiko, enplegu eta kontsumo mailak berreskuratzen laguntzea, Udalaren webgunean irakurri daitekeenez. 4.120.597 euroko aurrekontua izango du, eta hiru oinarri nagusi: soziala, ekonomikoa eta hiri antolamenduari dagokiona. Helburu sozialetara 1.100.000€ bideratutako dira, eta horiekin finantzatuko dira Tokiko Enplegu Plan bat (285.000€); Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (166.500€); 'Etxetik Plazara' programa (84.000€); familientzako etxez etxeko otordu-programa indartu (82.600€); familientzako kontziliazio-programa integrala (54.500€) eta udal-laguntzak. Ekonomiaren alorrean 2.628.000€ inbertituko dira. Horietatik 1.000.000€ enpresen lehiakortasuna sustatzera zuzenduko dira, “bereziki Izarra Centre zentroan kokatutakoak”; 978.000€ enpresa berritzaileentzako espazioak erosteko erabiliko dira; 200.000€ merkataritzarako eta ostalaritzarako laguntzetarako; 160.000€ kontsumoa dinamizatzeko eta familiei eskola-materialerako laguntzak emateko; 90.000€ enpresak alokatzeko laguntzetarako, eta herriko Merkataritza eta Ostalaritza Elkarteari (EMOEri) 80.000 euroko diru-laguntza emango zaio herrian kontsumo-bonuak egiteko. “Ermua aurrera” planaren hirugarren oinarria hiria bera da (318.000€). Atal honetan 129.000€ erabiliko dira Erdikokale zeharbidea urbanizatzeko; 118.000€ Ermutik Mallabiarako eta Goitondo industrialderako bizikletentzako erreia egiteko; beste 50.000€ genero-ikuspegia duen bidezidor berde bat sortzeko; 6.000€ bide-desinfekzio eta -garbiketarako atomizagailu bat erosteko eta beste 7.000€ airearen kalitatea neurtzeko estazio baterako.

# Ingurumen Sailak baimena eman du Zaldibarko zabortegia handitzeko

Verter Recycling enpresak egindako proposamena onartu zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak ekainaren 30ean. Hori dela-eta, Zaldibarko zabortegian erabiltzen ari den segurtasun-biltegia handituko da, "haren okupazioa agortzear baitago", arduradunen esanetan. Bigarren segurtasun-biltegia eraiki beharrean, Motia mendiaren magalean 68.500m$^2$ hartuko dira, eta honek bilaketa- eta egonkortze-lanen jarraipena ziurtatuko du, Eusko Jaurlaritzako Irekia atarian irakurri daitekeenez. Geotekniari eta hidrologiari buruzko azterketa teknikoen arabera "egokia da" biltegi berria hartzeko kokalekua, eta 804.000m$^3$ zabor jaso ahal izango ditu. Faseka eraikiko da biltegi berri hau, 20 hilabeteko epean, baina "lehen hilabete pasatxoan, 1. fasea 215.000m$^3$ inguruko edukiarekin erabiltzen has liteke. Horrela ziurtatu egingo da zabortegian lurperatutako bi langileak, Alberto Sololuze eta Joaquín Beltrán, bilatzeko eta isurketak egonkortzeko egiten ari den presazko lanen jarraipena, DS1 biltegiaren edukiera agortzen bada ere". *(Arg. Eusko Jaurlaritza)*

# Langabeziak gora egin du Ermuan eta Mallabian azken hilabeteotan

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPEk) kaleratu dituen datuen arabera, Ermuko langabetuen tasa %25 hazi da otsaila eta maiatza bitartean, eta Mallabikoa %20. Otsailean 800 langabetu zeuden Ermuan (314 gizon eta 486 emakume), eta maiatzean (hilabete honetakoak dira kaleratu diren azken datuak), 1.001 (428 gizon eta 573 emakume). Datu horietan oinarrituta, emakumezkoen artean %17 igo da langabetuen tasa, eta %36 gizonezkoetan; eta adinari erreparatuta, langabetu guztien %48k 45 urtetik gora ditu. Urtebete lehenago, 2019ko maiatzean, 726 langabetu zegoen Ermuan (2020an baino 275 pertsona gutxiago). Mallabiari dagokionez, otsailean 55 langabetu zeuden (19 gizonezko eta 36 emakumezko) eta maiatzean 66 (26 gizonezko eta 40 emakumezko). Emakumezkoetan, beraz, %11 hazi da langabezia, eta %37 gizonezkoetan; eta langabetu guztien %53k ditu 45 urte baino gehiago. 2019ko maiatzean 37 langabetu zegoen herri honetan (2020an baino 29 pertsona gutxiago).

## MIGUEL ÁNGEL DE LA CALLE ERMUARRAK IRABAZI DU ERMUA HIRIA LITERATUR LEHIAKETA

"Una tarde con Voltaire" lanak irabazi du XXVI. Ermua Hiria Literatur Lehiaketa, narratibaren kategorian. Miguel Ángel de la Calle Cenzual ermuarrak idatzitako lan hau nabarmendu du lehiaketako epaimahaiak, aurkeztutako 55 kontakizunen gainetik, eta erabaki honi esker 400€ko saria jaso du bere egileak. Euskarazko narratiban "Mendiko bezero diruduna" izan da garaile (Oskar Azkona, Laudio), gaztelaniazko poesian "Carta para Aanisa en tiempos de guerra" (Pedro Carbonell, Alacant), eta euskarazkoan "Itzulera" (Ander Villacián, Bilbo). Euskarazko lanen epaimahaia honako hauek osatu dute: Fernando Aranberrik (euskara teknikaria), Yurre Ugartek (idazlea) eta Sara Gagok (Udal Liburutegiko arduraduna). Gaztelaniazko narratiba lanen epaimahaia Cándido Pascualek (Udal Liburutegiaren bazkidea), Aimar Aguirrek (San Pelaio Ikastetxeko irakaslea) eta José Miguel Fernándezek (Udal Liburutegiko langilea) osatu dute. Gaztelaniazko poesia epaimahaia, aldiz, Cándido Pascualek (Udal Liburutegiaren erabiltzailea), Maite Lorenzok (poesia tailerraren dinamizatzailea) eta Isabel Gonzálezek (Udal Liburutegia).

# Gaseosak eta sifoiak berton egiten zenekoa

**Ardo beltza gaseosa edo sifoiarekin nahastea sasoi bateko edari popularrena zen. Gasdunok ekoizteko fabrika ugari zabaldu ziren hamenka, tartean Ermuko Ostatukoan. Ordukoen berri ondorengo lerroetan.**

Gaseosa eta sifoiak estimazio handia zuten sasoi batean, edaria bizitu eta freskagarri sentsazioa ematen zutelako. Garagardo, bermut eta batez ere ardo beltzarekin konbinazio gustagarria egiten zuten, haien gustua larregi aldatu barik, alkohol graduak gutxitzen lagunduz. Gaseosarekin nahastean edariak gozorantz joten zuen moduan, sifoiarekin garratzerako bidea hartzen zuen; gustu kontuak beste behin. Ostatuko alaba den Begoña Mallagaraik kariño handiz gogoratzen ditu harekin lotzen dituen urteak. Etxea aitaren aldeko aitxitxa-amamek erosi zuten, eta jardueraren kargu seme-alabetatik zein geratu pentsatzeko unea ailegatzean, Constan, Begoñaren aita ikusi zuten egokien, ordurako Maria Aranbururekin ezkonduta eta mostradorerako sinpatia berezia zuena.

Victor Mallagarai, Ostatuko semea, Erdiko kalean sifoiak partitzen (1959).

### Fabrikak nonahi

Ermuko Ostatua eraikin handia zen eta denerako lekua zuen: taberna, jatetxe eta baita gaseosa eta sifoien fabrika batentzat lainekoa. Ingurumari honetan ez zen bakarra izan: banaka batzuk aipatzearren, 36ko gerra aurrean, Eibarren Ciriaco Mendizabalek bat jarri zuen, Sport izenarekin jardun zuena gaseosagintzan; urteak beranduago, Elgoibarren Pedro Arriaga eta Jose Jaiok bion abizenen konbinazioarekin bataiatu zituzten merkaturatutako lejia eta gaseosak; Soraluzen Pastora Iraolak amarengandik ikasi eta bere kaxetara hasi zen gaseosa kontuokin; Ondarrun, bi egon ziren, Abadea izenekoa bata; Berrizkoa, The Soda Water zen; Durangon, hamarkada desberdinetan ekoizle izan ziren Alejandro de Larrea, Francisco Aspiazu, Victor Munitxa, Juan Azkonizaga, Jose Erzilla, Jesus Ruiz, Pio Arana eta Emilio Esparzaren alarguna; Elorrion, Maria Atxutegi eta Bernardino Igarra; Markinan, Ignacio Legarra... Non ez?

Begoña Mallagarai, Ostatuan lagun artean eta eurenean egindako sifoi botila baten aurrean (1961).

Ostatura itzulita, mostradorearen kargu Constan zegoen eta jatetxearena Maria, sukaldari trebea: berdura menestra, karakolak edo txipiroiak ikusgarri egiten zituen arren, bere espezialitatea ehiza zen "gatz-berakatza emonda, zoragarri prestatzen zitxuan kazarixak ekarritxako oilagorrak", diosku Begoñak amaren sukaldatzeok akordura ekarriz. Bere errezeta koadernoa gordeta dauka familiak; letra dotorez han datoz eguneroko jateko moduko makarroi, zopa eta oilaskoekin batera, jaiegunetarako langosta, rape eta reposteria gozo-gozoak.

Bezeroen artean edari gasdunak gero eta estimazio handiagoa zutela erreparatuta, etxean bertan egiteari ekin zioten. Tabernaren atzeko aldea atondu zuten horretarako. Kristalezko botilak, hauek urez betetzeko makina, txapak, sifoiak, tartarikua eta abarrok Bartzelonatik jiratuko zituzten, Begoñaren akorduz, "González y Mailloren bitxartez, papelak egoten ziran-eta hantxe gordeta". Etxeko guztiak hartzen zuten parte gaseosagintzan. "Aitxak esaten zostan: `Gaseosa kaja batzuk bete bihar doguz eta guazen!". Aurretik berak botata ekan tartarikua, sakarinia eta limoian esentzia. Tartarikua dira kuadrado zuri batzuk, gasa emoten dotsena. Gaseosiak besterik ez dau bihar, horretxek hirurok eta ura. Makiniak esaten zebanian honenbeste gradura aillegau dirala, orduan botatzen jakon ura. Aitxak beste zeozer eitxen zeban bitxartian, nik haxe: urez bete botillak makina baten". Litro erdia baino txikiagoko botila

Zure publizitatea:
DROGETEN ITTURRI
Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria
943 179350 / 688 632876
drogeten@gmail.com

haiei, “nahastiak eindakuan, txapa bat ipintzen jakuen ahuan; ondo ixteko, beste makina batekin gogortzen genduzan, ondo prezintauta juan bihar ziran-eta, gasa galdu ez zeixan”.

**Tentu handiz**

Gasdunak izatean errebentatzeko arriskua zuten eta, ez bazen sekula ezer gertatu, kontu handiz egin behar zen guztia. Sifoiak ere bere arriskua zuen; kristal sendoko botilak ziren, barruan hodi bat, tubo bat zeramana eta honen ahoan manilladun txapel bat. Sifoi-botilaren barruko gehiena ura zen, eta anhidrido karbonikoa nahasten zitzaion; honek sortzen zuen manilliari sakatuta presiora irtengo zen gasa. Dzi! Dzi! Tartariko, esentzia eta anhidridook neurri-neurrira bota behar ziren, tantaka eta pisatuta.

Banaketaz Victor semea arduratzen zen. “Bijitxuaraz kaja bi gaseosa”, eskatzen zioten. Kajok mugitzeko hiru erroberadun karrotxo berezi bat zuen eta harekin partitzen zituen, “taberna eta etxe partikularretara, kalerik kale. Karruakin danera aillegatzen zan gure Victor, Ermuan orduan danok paraje lauan bizi giñan-eta. Santa Ana, Santiago eta Ongaraixok ein barik ondiñok!”. Botilak gero berrerabili egiten ziren, garbitu urarekin ondo-ondo eta berriro betetzeko prest! Orduan birziklatzea zer zenik ere ez! Ordainketak ere momentuan baino, geroko lagatzen ziren sarritan. “Pagaukuat” esan eta aurrera!

Ostatuko etxea, bota baino hilabete batzuk lehenago (1976).

Victor Mallagarai, sifoi banaketa egiten karro batez lagunduta (1957).

Eibarren Ciriaco Mendizabalek bere gaseosa botilak Estixako iturburuko urarekin betetzen zituen modura, Ostatukuan San Pelaixokoa hartzen zen, “han beti ur ona egon dalako, bertan jaixotzen zan-eta”. Denerako behar zen: mostradorerako, sukalderako, garbitasunerako, gaseosa eta sifoiak betetzeko... Begoñaren berbetan, “Ermuan urakin txarto ibili gara beti. Eguna juan eguna etorri, eskas beti eta amak ur-depositxua eitxia pentsau eban. Lurpekua ein genduan, personia tente sartzeko bestekua eta hantxe amaitxu ziran arazuok betiko!”.

Isidro Beitia Otxua baserrian jaio zen, Ostatu parean eta etxean entzunda dauka zelan behin Alfontso XIII. Erregea, Donostiatik Bilbora autoan zihoala, Aitxixo igotzen hasi eta Ziharreko bueltara orduko, kotxeak indarrik ez-edo eta igo ezinik geratu zirela. Ostatuan zaldiak zituzten eta haiei lotu autoa eta Aitxixoko lautadaraino erremolkatu zutela, erregea barruan zela.

Ostatukua, korta eta guztiko baserri izatetik, dantza-saloi arrakastatsua, kantu eta kontuetarako taberna estimatua, tripa-zorriak asetzeko jatetxe apartekoa, gaseosa eta sifoien fabrika porrokatua eta Ermuko Batzoki ere izatera ailegatutakoa, 1976an bota zuten, gaur eguneko Kutxabankeko gaineko etxebizitzak egiteko. Haren hormak ez jakin zenbat ipuin eta taberna bueltako autu entzundakoak diren eta mostradore ostekoek zenbat “Etaraizak pare bat ardau gasiosiakin!”.

Estibalitz González

optika
ITZE
✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA
Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

solozabal
tabakoak
torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]
Zubiaurre, 2 · 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

ileapaindegia
Silvia
peluquería
Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00
943 170474
688819336

# Orduko denporetako Santixauak

**Santixau jaixei, datozela eta gogotsu begiratu izan jakue beti; amaitxu dirala, eta gogorapen ederrekin ekartzen doguz akordura. Aurten haren gaineko kontakizun eta irudi gitxi gordeko ditxugu eta horregaitxik atzera begira jarri gara, ia urte guztiko jai bakarra ziran sasoietara.**

**Ohitturari jarraittuz, Zezen Eguna errekan ospatzen (1956).**

"Ai, Santixauak! Bezperan kriston ixardixa etara etxia garbitzen: lustria emon, brotxiau, brillua etaratzen hankiakin, mela-mela einda… Ez alperrik! Bixamonian igarri bez-ta! Eta konbidauak etorten bazian, txarrao ondinok, etxe garbitzen! Santixauak guretako izaten zitxunan ¡a lo grande pasatzekuak! Gero bakaziñorik-eta ez zeuan. Eta proba egunian, barriz, biharra ugari! Goixian bazkarixa ipintzen; bazkaldu ordurako barriro afarirako leka-patatak atzera ipintzen. Bueno baina gero geratu bez dantzan!". **Luisa Egia.**

"Santixauetan Eibartik egoten zian autobusak Ermura, Garaje Eibarresa. Santixau egunian Garellano Bandia etortzen zan eta Santa Ana egunian Flandes. Musikia. Eta antxiña basarritxarrak asto-sarekin, minbrezko asto-sare haundixekin makatzak eta sagarrak eta… bueno, frutia saltzen eben. Plazan egoten zian goiz-goiz, saltzeko". **Jesusa Ardanza.**

"Plazan egoten zuan Txikurixa, taberna bat aire libian. Hor jeuazen tilo-arbola haundi batzuk, baina itzelak eta haretxen azpixan ipiñitxa, zerrauta modura, mostradore haundi bat, mahaixak eta sillak eta ha subastau eitxen juen jai guztietarako. Haxe izaten zan plazako erromerixiori!". **Miguel Yarza.**

"Tanborilteruak tanborra joten zeban esanez Santixau bezperia zala hurrengo egunian eta zelan ein bihar ziran norberan atai aurriak-eta garbitxu. Izaten zan ba ilusiño haundixa Santixauetarako! Bezperan aiuntamientuan ardaua egoten zan debalde danendako; kazuelatxo bat edo bokadillo batekin juaten zan, baina ardaua han edan bihar zan, ez zan etaratzen kanpora. Eitxen zian oilluak edo oillaskua lumatu eta preparau hurrengo egunerako. Gero iluntzian urtetzen eban Bandiak, pasakallesian. Santixau bezperia izaten zan totaleko alegria; gizonak batzuk nahikua edanda eta lar be bai… Juan plazara eta, Ermuan orduan jende gitxi giñan eta halan be plazia beteta, danak eitxen eben orduan dantzan be. Itzela izaten zan! Santixau egunian gero, goizeko bedratzi t´erdietan ekitze otsen kanpai joten…! Gero mezia, bazkarixa, erromerixia eta gabian dantzia". **Maria Bengoetxea.**

"Zezenen eguna, nire gazte denporan akordatzen jatana, izaten zian dantzasuelto eta aurreslari konkursuak. Aiuntamientuan ixa presupuesto dana gero Bandiak eruaten eban, kanpotik ekartzen eben, banda militarrak izaten zian: goizian konziertua eta atsaldian bailabliak. Andrazkuak labaderora juaten zian garbitxasunak eitxera jaixak pasauta eta lexibia eitxera. Desiatzen egoten zian aurreskuak ekitzeko. Kalerik kale urtetzen eben aurreskuan eta atzezkuan eitxen eben bigarrenak eta ekartzen zitxuen andrak plazara. Espresamente labaderora juaten ziran aurreskuan etaratzeko!". **Joseba Idigoras.**

Estibalitz González

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

SAGARDUI poltsak
Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT
ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.
www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

# JOSU ELUSTONDO

***- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?***

Beti kalean, plazaren inguruan: futbolean jolasten, “chorro morro pico tallo”ra, txapekin…

***- Eta gaztaroa?***

Batzuetan Eibarrera jaisten ginen txikiteoa egitera, mendira edo futbolean aritzen nintzen. Ermuko jubeniletan jokatu nuen.

***- Ikasteko aukera izan zenuen?***

Eibarko Ignacio Zuloagan ikasi nuen, baina matematikak suspenditu nituen eta ez nuen bukatu.

***- Umetan zer izan nahi zenuen?***

Administraria bulego batean.

***- Zenbat urterekin hasi zinen lanean ?***

19rekin, GACn. Bizikletak, ziklostatikak eta motorrak egiten genituen. 20 urtetik gora eman nituen bertan.

***- Zein zen zure zeregina?***

Hasieran motorren keinukariak egiten nituen, eta lan polita zen. Gero, langileen eskubideak aldarrikatzen bazterrak nahasten ibiltzen nintzenez, ni eta beste gazte batzuk soldadura atalera bidali gintuzten, zigor bezala-edo. GAC itxi zutenean bizpahiru lantegitan egin nuen lan, eta azken urteotan kaleko garbiketan.

***- Nolatan ba?***

Ikusi nuen garbitzaileak askotan aldatzen zituztela, eta nire burua aurkeztu nuen lan horretararko. Debabarreneko herri ezberdinetan ordezkapenak egiten egon naiz 7 urtez.




**Zaldibarren jaio zen duela 63 urte, baina Ermuan bizi izan da betidanik, Mártires kaleko Bodega Pepe gainean (egungo Erdikokalen). Aita Aizarnazabalkoa eta Zumaiakoa ama. Bi arreba ditu, bera baino nagusiagoak. Leire eta Iker seme-alabak. Duela bi urte hartu zuen erretiroa.**

***- 2018an erretiratu zinen. Zertan ematen duzu denbora?***

Beste bizimodu bat daramat. Goizean liburutegira edo KZgunera joaten naiz ordubete inguru, ordenagailuan ibiltzera. Gero etxeko lanak egin (dena txukun egotea gustatzen zait), bazkaldu, eta kalean kafea hartzen dut, egunkaria irakurtzen dudan bitartean. Igandean paseatzera joaten naiz.

***- Bidaiatzea gustuko duzu?***

Bai, Kuban bospasei bider egon naiz, Brasilen, Grezian, Marokon; Peñiscolan, Saloun, Rias Baixasen, Ibizan…

***- Bidaia batean ezagutu zenuen emaztea?***

Bai, Kuban, baina duela 15 urte baino gehiago dibortziatu ginen. Oso harreman ona dugu oraindik ere.

***- Musikazalea zara?***

Bai, Bruce Springsteen asko gustatzen zait, eta bi bider ikusi dut zuzenean: Donostian eta Montpellierren.

***- Telebista, irratia…***

Telebista gutxitan ikusten dut, ETBko albistegiak bakarrik. Orain alaba dago bertan lanean.

***- Askotan egoten zara banku batean jarrita…***

Bai, eta nire izaeragatikedo, pasatzen diren 100 pertsonetatik 95 agurtzen ditut.

***- Jateko?***

Etxean okela jaten dut batez ere, beraz, etxetik kanpo arraina eskatzen dut.

***- Akatsik baduzu?***

Onartu behar dut pertsona urduria naizela, eta batzuetan nerbioek traizionatu egin naute. Eta burugogorra naiz.

***- Zerk haserretzen zaitu?***

Faltsukeriak.

***- Zure bizitzako egunik zoriontsuena?***

Seme-alabak jaio zirenean.

***- Nola eraman duzu konfinamendua?***

Nahiko ondo. Ongarain bizi naiz orain, eta balkoia izatea asko eskertu dut. Gainera, Txabi Arnal idazlearen ama bizi da nire peoran, eta liburuak lagatzen zizkidan.

***- Zein albiste irakurri nahiko zenuke?***

Bi: Covi19aren kontrako txertoa sortu dutela, eta Joaquin Beltrán eta Alberto Sololuze agertu direla.

***- Covid19ak krisia ekarriko dugu?***

Bai, eta gure babes osoa eman behar diegu dendei eta tabernei. Hiru hilabetetan ez dute etxera dirurik eraman, eta haiek dira herriari bizitasuna ematen diotenak.

Dorleta Vidal

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika
Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
LAN BABESERAKO
ORNIDURA
Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

TXALAPARTA
ABERNA
Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!
- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...
Erdikokale 13 (Ermua)
ENKARGVAK 943 030 299

# Bikote harremanak eta konfinamendua

Nahia Rojo

Ezin dugu ukatu konfinamenduak proban jarri dituela bikoteak. COVID-19ak astelehenetik igandera arteko eta 24 orduko bizikidetza ezarri du konfinamenduaren aurretik elkarrekin bizi ziren bikoteen kasuan. Horren ondorioz, errutinak eta bizi-egiturak erabat aldatu dira. Kasu askotan, egoera zailagoa izan da bikotekideak seme-alabak edo beste senide batzuk baditu arduarapean, eta horiek ere elkarrekin bizi badira.

Berrogeialdiaren lehen egunak idilikoak ziruditen bikote askorentzat: orain denbora gehiago eman zezaketen elkarrekin, telesailen maratoiak ikusi, elkarrekin kozinatu… baina pentsamendu horiek bizi izan ditugun errealitate gehienekin bat ez datozen itxaropenak sortu zituzten. Ondorioz, bikote-gatazkak ugaritu egin ziren.

Txinan, konfinamenduaren amaieran, dibortzioek gora egin zuten, epaitegiak kolapsatzeraino. Nahiz eta hemen oraindik ez daukagun gertatutakoari buruzko datu askorik, badakigu dibortzio-kontsultek gora egin dutela. Izan ere, hemen beti dago hausturen gorakada handia bikoteek elkarrekin denbora gehiago igarotzen duten aldien ondoren, udako oporren ostean bezala.

Egia esan, ordu asko izan ditugu aurretik, eta pertsona askok ondo eraman dute, beste batzuek hala moduz, eta beste batzuk norekin bizi diren konturatu dira. Bikotekidea berraurkitu dute, denbora izan dute horri erreparatzeko, eta bikotekidea izan nahi duten ala ez jabetzeko. Baina, konfinamenduak eragin al ditu hausturak edo areagotu al du lehen funtzionatzen ez zuena? Erantzuna begi-bistakoa da.

> “Berrogeialdiaren lehen egunak idilikoak ziruditen bikote askorentzat”

Badira, halaber, eskertu dutenak egoera honek benda begietatik kentzea erraztu dietela. Asko ahaldundu egin dira erabakiak hartzeko, eta beraien bizitzetan aldaketa koherenteak egiteko.

Eta nola ez, bikote batzuetan lotura eta intimitate handiagoa sortu da, komunikazioa, afektu-adierazpenak eta sexu-harremanak hobetuz, elkarrekin denbora gehiago pasatzearen ondorioz.

Eta zuk zer aurkitu duzu egun hauetan zure bikotekidearekin duzun harremanean?

Egaña
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

IZASKUN TXURRUKA
Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

## LAN BILA

Orduka edo jornada erdiz, pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketak egiten. Berehala hasi naiteke. Esperientzia daukat.
✆ 632 415 374

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka.
✆ 681 310 989.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.
✆632 044 001

Zorionak Amaia, uztailaren 14an 4 urte bete dozuz, Zorixonak etxekoen eta aitxitxa eta amamen partez. Patxo haundi bat!

Uztailaren 23an
Zorionak gure txapelduna!! Super ondo pasa zure 12 urtebetetzean!! Asko maite zaitugu maitia, zorionak Unai!!!

Uztailaren 26an
Zorionak Jonathan zure 4. urtebetetzean etxekoen partez! Muxu handi bat.

Uztailaren 28an
Zorionak Inhar!
3 urtetxo, mutil handi! Musu asko etxeko guztion partez, txapeldun!

Zorixonak Joxe eta Dorita uztailaren 4an Urrezko Ezteiak ospatzearren. Muxu bat sendi osoaren partez!

Abuztuaren 11a
Zorionak Aitzol! Asko maite zaitugu! Oso ondo pasa zure egunian eta patxo erraldoi Maddi eta etxekoen partez.
Txitxirioak.

Lur (uztailaren 12an) eta Izar (abuztuaren 2an) 9 eta 3 urte gure bizitzak alaitzen!!! Zorionak maitxiak! Maitxe zaituztegu!!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:
**drogeten@gmail.com**
helbidera.
Azken eguna: **Irailaren 16a**

Enter informática
SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA
VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

arral97.com
arral
Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala
- Luis Cañas familia - Pazo Señorans - Txakoli Akarregi
- Añada Real - Vicente Gandía - Milana
- Yllera taldea - Oriol Rossell - La Loca Juana
- Gomez Cruzado - Astobiza txakolina - nítida
arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa poteoan
Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

Kopi-Fax
FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

# MALLABIA 1975

Argazki hau 1975 inguru-koa da, bertan Ibutx baserriko familikoak ager-tzen dira baserriaren aurrean. Gabino eta Ignacio Astarloa anaiak bere emazteekin, Florencia Basterretxea eta Rufina Bernaola.

# ERMUA 1953

Zerkan, plaza osteko etxe bitartean, erretraturako jarrita tente eta ezkerretik eskumara: Jesus Mari Telleria, Juan Luis Palacios, Elias Barajuen, Mariano de la Haya, ……, Jose Luis Altuna, Miguel Mari Areitioaurtena, Pedro Mari Arana eta Jose Antonio Posada. Makurtuta: Manolo Nuñez, Elias Garitagoitia, Juanjo Olañeta, Ricardo Fernández eta Txomin Gorrotxategi.

**Eusko Jaurlaritzak argitaratu duen 2019-2020 ikasturtearen amaierarako Hezkuntza Planaren arabera, "komeni da, oro har, udako oporretarako indartze-zereginak edo errekuperazio zereginak agintzea" ikasleei.**

**Ondo iruditzen zaizu?**




Bai: 15 boto.
Ez: 45 boto.

Uztailaren 8tik 15era egon da inkesta honetan parte hartzeko aukera, eta guztira 60 boto jaso dira Euskal Biruseko Facebokeen.




URRETA burdindenda
✖ Etxea ✖ Giltzak
✖ Tresneria ✖ Sarrailagintza
✖ Brikolajea ✖ Kit altzariak
✖ Errailak
Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

KRABI
Ileapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

## UDAKO ZINEA ERMUAN

***Abuztuaren 3an:***
*"El viaje de Marta".*

***Abuztuaren 5ean:***
*"Cómo entrenar a tu dragón 3".*

***Abuztuaren 7an:***
*"Yesterday".*

***Abuztuaren 10ean:***
*"Familia al instante".*

***Abuztuaren 12an:***
*"Yuli".*

***Abuztuaren 14an:***
*"Spiderman, lejos de casa".*

***Abuztuaren 17an:***
*"Shazan".*

***Abuztuaren 19an:***
*"Green book".*

***Abuztuaren 21ean:***
*"Pequeño gran problema".*

***Abuztuaren 24an:***
*"Infierno bajo el mar".*

***Abuztuaren 26an:***
*"Mascotas 2".*

***Abuztuaren 28an:***
*"Padre no hay más que uno".*

*Emanaldi guztiak plazan izango dira, 22:00etan hasita. Euria egiten badu, elizako aterpean.*

*Derrigorrezkoa da maskara eramatea eta eserita egotea. 10 urtetik beherako umeak pertsona heldu batekin joan beharko dira.*

## ANDRA MARI JAIAK MALLABIAN

***Abuztuaren 14a, ostirala***

***Umeen eguna***

*17:15 Pituxa Clowntu kontari, parkeko aterpean. Gehienez 50 pertsona eserita. 17:00etan zabalduko dira ateak.*

*18:30-21:00 Kale animazioa Elektrotxarangarekin.*

*19:00 Txupinazoa.*

*19:30 Txokolatada, parkeko aterpean.*

*21:15 edo 21:30. Pilota partiduak herriko frontoian. Aforoa %60 (208 lagun eserita). Umeak gurasoekin joan beharko dira, eta sarrera erosi. 20:30ean zabalduko dira ateak. Sarrerak abuztuaren 5etik 13ra bitartean egongo dira salgai udaletxean.*

*- Mallabiko langabe, ikasle, jubilatu eta pentsiodunenak: 12€*

*- Gainontzeko mallabitarrak: 18€*

*- Partidu egunean 20:30ean zabalduko da txarteldegia eta sarrerek prezio bakarra izango dute, 25€*

***Abuztuaren 15a, larunbata***

***Andra Mari eguna***

*11:00 Meza, Jasokunde parrokian.*

*12:15 Mallabiko dantzariak, herriko frontoian. Aforoa %60 (208 lagun eserita).*

*17:00 Mallabiko XXX. HARRIJASOTZE SARIA Harri Txikia, herriko frontoian. Aforoa %60 (208 lagun eserita). 16:30ean zabalduko dira ateak. Parte hartzaileak: Xabat Olaizola (Zarautz), Iraitz Arruti (Zarautz), Mikel Lopetegi (Zarautz), Manex Aburuza (Orio), Jagoba Otaegi (Aizarna), Josetxo Urrutia (Leitza), Inhar Urruzuno (Ondarroa), Julio Jimenez (Arévalo).*

*19:00 Aukerak kale antzerkia parkean, euria bada CIP-eko futbito zelaian. Gehienez, 200 lagun eserita. 18:30ean zabalduko dira ateak.*

*23:00 Ruper Ordorika parkean. Gehienez, 200 lagun eserita. 22:30ean zabalduko dira ateak. Euria bada, herriko frontoian.*

***Abuztuaren 16a, igandea***

***San Roke eguna***

*11:002:15 Meza, Jasokunde parrokian.*

*12:30 Rojo Telón taldearen "Haiek naiz" ikuskizuna frontoian. Aforoa %60 (208 lagun eserita). 12:00etan zabalduko dira ateak.*

*17:00 Scape Room. Hasiera parkeko aterpean. Gehienez, 40 lagun 5eko taldeetan banatuta. 16:30ean zabalduko dira ateak.*

*19:30 Luhartz erromeria parkean. Gehienez, 200 lagun eserita. 19:00etan zabalduko dira ateak. Euria bada, frontoian.*

**Udalak ekintza guztietarako maskarak banatuko ditu.*

TXINDURRI TALDEA
Tokian tokiko
Drogetenitturri, 291 zk.

PRO arraindegia
ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK
Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Infreñu Taberna
Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA MUSIKA ESKOLA
- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxeloa
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua
Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

OINAK
LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
✆ 943 17 47 44

irale
Hortz Klinika
Clínica Dental
C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea
Hortz klinika berritu eta handitu dugu
San Inazio 4
Ermua
Tel.: 943 030 512
niklinika@gmail.com

# OSASUN GIDA

fisioterapia
eta osteopatia
zentroa
aitziber
Aitziber Fernández
Telf. 943 17 60 95
629 88 70 89
Sexto Centenario 13,behea
48260 ERMUA (Bizkaia)

SAN PELAYO
HORTZ KLINIKA + CLÍNICA DENTAL
Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a tí
Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Col.nº 1264
- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO
943 17 04 04
info@clinicasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

FUB
Mediku psikiatra · Psikosomatika
Psikoterapia psikoanalitikoa
FERNANDO URIZAR BARANDIARAN
Ego gain ,18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

**Osasun gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera**

Gure eskaintza berria,
Ekimen berria,
Zuekin batera egiteko nahia.

Erreserbak:
610 222 468
www.mañe.eus

Mañeko
Etxeko Janariak